

ERREPORTAIA SORALUZEKO ETORKINAK PAPER BILA
SUTONDOAREN EPELEAN AKELARRE TALDEAK AGUR ESAN DU BETIKO

pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 106. alea 2005ko otsailaren 25a

Zain udaberría
Luze negu gorría

Zorionak eta urte berri on!



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





Emigrazioa

SILVIO VAZ CARO

(Erredakzioan itzulia)

Aintzinako garaietatik existitu da exodoa hiri populatuago eta garatuagoetara. Zehaztu gabeko denbora tarteetarako, epe batean bizi izateko, bakarkakoak edo sendikoak eta baita komunitate osoen ere, edo beharri-kan ekonomiko edo egoera politiko edo geografikoengatik ere bai. Gutako edozein egon ahal izan da bizitzen beste hiri edo herrialde baten, ikasketak egiten edo lanean.

Gaur egun, gizateriaren historian izan duen garrantziarekin, herrialde bakoitzak neurriak hartzen ditu geizki deitutako "migrazio arazo"rekiko. Egia da herri batzuetako migrazioa masiboa denean beste kultura batzuetako gizarte eta idiosinkrazian eragin dezakeela. Herrialde migratzaile eta etorkin herrialdeen arteko oreka lortu gabe dago, eta beraz, konponbide hobeak aztertu beharko lirateke harreman hauendako.

Arazo nagusia, etorkin herrialdeak, hau esaterako, migrazio prozesua oztopatu, eragotzi eta burokratizatzearekin bakarrik arduratzen direla da. Norabide honetan zuzendutako legeekin eta gizarteko alderdi garrantzitsu bat kontuan ez hartzearekin: denbora, egotaldi ilegalak eragindako arazoak, lan baldintza, bizimaila, gizarte murgiltze eta elkar harreman negargarriak sortzen ditu. Gainera, neurri batean ez da egoera aprobeztatzen, beste herrialdeetako ezaugarri zehatz batzuk

norbereganatu ahalko bait lirateke, kultura, ekonomia, gizarte edo administrazio arloko ñabarduren ugaritasuna aberastuz.

Benetako globalizazioaren esentzia, makropotentziek gutxien garatuta dauden herrialdeei ezartzen dieten eraginean dago; kulturak eta gizarte osoak sunsintuz, autonomiak eta garapen naturalak deuseztuz. Aintzina, inbasorerik argienek, ez zituzten konkistatutako herriak ezabatzen, kultura horien garapenbideak euren onurarako norbereganatu baizik. Potentzia handiek beti mundu osoa inbaditu badute eta beste alde batetik euren eremuan bertan etorkinen beldur badira, zer pentsatu eman behar liguke...

Joale batentzat inoiz ez da erreza bere aberritik kanpo dagoen herrialde bateko bizitza, aberria beti izango du guztietan ederrena, ametsetakoa, egiazko zorientasuna ezagutu zuen lekua, lagunak utzi zituena, bizitzako oinarriko gauzak ikasi zituena, jaio zen tokia. Nahiz etorkin baten egoera beste herri batzuetan birtualki perfektua izan, jomuga berriak izan, eta hau bezala, Euskal Herria, herri handi bat izan, baserrietako jendearengandik hasi, bere herriak, bere mendiak, bere ibaiak, bere musika, bere idiosinkrazia, bere kultura, bere hizkuntza, eta abar... herriminez eta hustasunez kondenatutako bizitza izango du. Gauza horiek ere kontuan hartu beharko lirateke.

Telegrapak

Edurra teilatuan. Stop. zelan doiaz edur egunok?. Stop. ze edarra dan edurra epeletik begiratuta. Stop. goretex zamarra jantzita. Stop. ze ederra dan edurtietan sortzen dan girua. Stop. danak edurtiaz berbetan. Stop. orduan jakiten dogu jendeari zer esan. Stop. orduan izaten dira elkarriketak autobusian. Stop. anbulategian. Stop. dendetan. Stop. eta gizartiaren abiadura mantxotzen da. Stop. sentitzen gara danok elkarren ezagun. Stop. lagun. Stop. ze sentimendu edarra dan hori. Stop. argixa junten danian moduan. Stop. Bihar lirake urtian 3-4 egun argirik barik edo metro beteko edurraz. Stop. mantxotu gaitezen. Stop. elkar agurtu. Stop. elkar lagundu... Stop. baina egunerokotasunian ustez kezka desberdinak dauzkagu eta bakoitza bere aldetik ibiltzen da. Stop. gero eta gehiago zoritxarrez. Stop. galdetu bestela etorkinei. Stop. gure artian bizi diran ezezagunei. Stop. papelak bakarrik ez, harremana be bihar litzake sendotu eurekin. Stop. elkarrekin afari batzuk egin. Stop. herria eta mendixak erakutsi. Stop. hemengo bizimodura ohitzen lagundu. Stop. eta elkarrekin kalamua erre agian. Stop. Akelarre taldiaren kantuekin dantzan egin. Stop. batera Korrika egin euskararen bidian. Stop. Europako Konstituzioak lagunduko dosku horretan?. Stop. ba seguraski ez!. Stop. botereak nahiago dau herri eta gizarte zatitua!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunee.net/PilPileanKulturaElkarte/EU

pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz

Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko

Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotipoa: Jon Gabilondo

(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Silvio Vaz Caro

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Joan zen otsailaren 7an ireki zen atzerritar etorkinek normalizazio eskaera egiteko epea. Soraluzeko Udalean 155 etorkin daude errolaturik: 90 ekuatoriar, 34 marokoar, 3 dominikar, 10 argentinarr, 8 brasildar, 3 kolonbiar, txiletar bat eta 6 venezuelar.

Zorion agurrak



Ibai Rodriguez
Martxoaren 11n
Zorionak potxolo
eta muxu haundi
bat!
Etxekuen partetik.



Jon eta Laura
Otsailaren 8 eta
9an.
Zorionak!
Muxu haundi bat!
Aita, ama eta etxe-
kuen partetik.



Nerea eta Maialen Alberdi
Otsailaren 21ean eta 24an
Zorionak Potxolak!!!
Muxu haundi haundi bat!!!
Etxekuen partez.



Josune Saban
Otsailaren 24an
Zorionak!!!
Jarraitu beti bezain
alai. Txintxua izan.
Gurasoen partetik.



Etor Ecenarro Ariznabarreta
Otsailaren 5ean jaio zen.
Zorionak eta ongi etorri Santa
Ageda eguneko gure koplari
berrixari!
Estutu eder bat zure fan sutsuen
partetik!

Gutunak

Estatus politikoaren alde Euskal Presoak Euskal Herrira

Spainiar eta frantziar estatuek Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurka urteetan aplikatzen ari diren kartzela politika bereizgarriak aurrera darrai. Dispersioa, isolamendua, jipoiak, komunikazioen murrizpenak, eta azken aldian betikotasunerako kartzela zigorrak, eguneroko ogia bihurtu dira.

Presoen oinarriko eskubideak, politikoak barne, behin betikoz onartuak eta errespetatuak izan daitezten, Kolektiboak borrokaldi berri bat martxan jarri du.

Beren aldarrikapenekin bat eginda, SAHak plataformaren izenean, hurrengo ostegunean, Martxoak 3, arratsaldeko 7etan Udaletxean egingo dan Plenora gonbidatzen zaitut. Hainbat espetsxetan bizi izaten ari diren egoera larria ikusirik, aurreko asterako eskatu genuen herri plataformatik Udal Batzar berezia egitea, baina zoritxarrez Alkate jaunak eta bere taldeak ez dute inongo larritasunik somatzen.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, gainontzeko euskal eragileen gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean, zuzenean parte hartzeko eskubidea du, presoek Euskal Herriaren egoteko eskubidea dute, eta hori lortzeko denon elkartasuna beharrezkoa da.

Pleno berdinean, Madrilen epaituak izaten ari diren 42 gazteri babesa emateko aukera izango duzu. Euskal Herriari dagozkion eskubide politiko eta zibilen aurkako lehen epaiketa fartsa da. Datozen hilabeteetan beste ehundaka euskal herritar izango dira epaituak 18/98 izenaz ezagutzen den makro-sumarioaren barnean.

Lerro hauen irakurketa eskertuz.

Jose Luis Arizaga – Txipi
SAHak plataformako zinegotzia

Hizkuntza eskubideen aldeko lan ixila

Euskal Herria, hizkuntza dela eta, ez dago herritar guztientzat aukera berdintasunik. Euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntzak, ez du estatus ofizialik Euskal Herri osoan eta euskal hitzunik egunero dituzte ukatuak beren hizkuntza eskubideak.

Horren aurrean Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak sustatu eta bideratu duen fundazioak, Behatokiak, Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideen urraketak jaso eta ezaguturazten ditu.

Behatokiak neutralitatez eta Kontseilua ez den beste edozein erakunde publiko zein pribaturenganako menpekotasunik gabe betetzen du bere lana:

- Hizkuntza eskubideen edukiak zabaldu eta hauen egoeraren azterketak egiten ditu.

- Gizartean erreferentzialak diren erakundeak euskara erabil dezaten eragiten du eta eredugarriak direnak txalotzen ditu.

- Herritarren kexak batu eta bideratzen ditu.

ETA KEXAK NOLA JASOTZEN DITU?

Euskararen telefonoa: 902194332

Doaneko telefono hau Euskal Herriko edozein herritarren eta elkarteren eskura dagoen zerbitzua da.

MARTXOAREN 3-AN, EGUENA, 19:30ETAN Euskararen Behatokiaren Inguruko hitzaldia izango da Kiroldegiko Erakusketa Gelan.

Soraluzeko
Euskal Herriaren Euskaraz



LEHIAKETAK

Sexismoari Stop

Biluzik sexologia zerbitzuak Sexismoari Stop pegatina lehiaketa antolatu du. 15 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Lanak papelean eta euskarri digitalean entregatu behar dira, anonimotasunean. Egilearen datuak gutunazal txikiago batean sartu behar dira. 200 euroko saria dago jokoan. Informazio gehiago 943 74 14 61 zenbakian edo biluzikerbitzua@yahoo.es

Sexmetraia

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Sexmetraia 2005 lehiaketa jarri du martxan. Gizon eta emakumeen bizitzeko errealitate ezberdinak gizarteratu eta goraiatu nahi dute Sexmetraiaren bitartez. Sariak: 600 eta 1.500 euro bitartean. Epea: ekainak 10. Informazio gehiago: 943 798010 telefonon edo Arrasatdeko Udalean.

Pintura lehiaketa

Carsa-Artek antolatuta, Arte eta Teknologiko III. Pintura Lehiaketa Nazionala antolatu da. Bi arlo daude: arte digitala eta pintura. Sariak 300 eta 3.600 euro artekoak dira. 18 urte betak dituzten guztiak har dezakete parte. Epea: martxoak 31. Informazio gehiago eskuratzeko: 94 4805183 telefono zenbakian.

BESTELAKOAK

Pisua salgai SORALUZEN

Sukaldea eta komunak amueblatuta. Garaje eta solairuarterkoa eta txokoa (144 m²). 615779920

Garbiketa lanetarako prest

Emakume bat garbiketa lanak egiteko prest legoke. 943753074



Zer irizten dotsazu?

Laster kalamua zenbait gaixotasunek eragindako minen aurkako terapia gisa erabiliko dute Katalunian. Helburua sustantzia horrek osasunean eragin ditzakeen onurak aztertzea da. Bitartean kalamuak sustantzia ilegalak da, kontsumoa gero eta zabaldiago dagoen arren.

Ze eritzi daukazu kalamuaren erabilera terapeutikoaz? eta legalizazioaz?



Egoitz Portu
22 urte
Kiroldegiko langilea
Kataluniakoa oso ondo iruditzen jata. Legalizauta egon bihar litzateke danerako. Jentiak kalera urten bihar dau, tabernetan sartu eta ikusi jente guztiak erretzen dabela, ez dot ulertzen ondio ilegalizatuta zela dagan.



Ezosi Basauri
62 urte
Etxekoandrea
Nik uste dot oso positibua dala minbiziaren tratamendurako, hemen be horretarako onartu bihar litzake.



Amaia Agirre
30 urte
Teknikaria
Ondo iruditzen jata, nik uste dot droga legalak ilegalak baino kaltegarriagoak dirala, nere ustez legalizatu egin bihar litzake.



Jon Murguita
41 urte
Pintorea
Legalizaziñua onartuko balitz ondo ikusiko neuke. Nere ustez ez da droga hain txarra, kataluniako esperientzia ikusi eta gero hamen berdina egingo dabe.



Maite Zabala
34 urte
Kiroldegiko langilea
Bai noski. Hamen be legalizauta egon bihar litzake eta ez bakarrik helburu terapeutikuetarako, danerako legalizau bihar da.



Ainhoa Sarmentero
27 urte
Ikaslea
Ondo ikusten dot Katalunian egin dabena, hamen be berdina egin bihar litzake. Nere ustez droga bigunak debekatzia ez da soluziñua, jentiak informaziñua bihar dau.

ARMENDIA
JATETXEA



Sukaldaritza tradizionala

Ezosi Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Instalazioak
Berrikuntzak



Kiru
Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 76 99 85
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Edurteak eragindako gorabeherak

Aurtengo neguko hirugarren elurteak kaleraino zuritu zituen bazterrak joan zen asteko lehen egunetan. Udaltzaingoak jakinarazi zigunez elurrak ez du kalean aparteko arazorik eragin baina mendialdeko auzoetan (Ezozi, San Andres, Txurruka...) edurra kentzeko makina pasatu behar izan zuten martitzenean, baserriarrek hala eskatuta. Bestalde, piñadi gazteetan eta mendiko zaldi haziendetan ere kalteak eragingo zituen beldur dira zenbait baserriar. Eguraldi iragarpenek elurte berri bat iragarri dute datorren asterako.

Jon Basauri ZER BERRI



Guenetxetxo baserriko atarian elurra kentzeko makina.



Elurra kentzeko makina Ezozi auzorako bidea garbitzen.



Izarreko ardiak eta bildotsa aterpe goxotik elurrari begira.

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

etxera

EUSKAL PRESIO, DEPORTATU ETA EKILIATUAK

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

98/18 epaiketaren manifestaziorako autobusa zapatuan

Zapatu honetan, 18/98 + Plataformak deituta, "eskubide sozial eta politikoen alde" Bilbon egingo den manifestazio isilera joateko autobusa antolatu dute SEGik eta Gazteak. Autobusa 16:00etan aterako da Gila zubitik, 17:30etan Bilboko La Casillatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko.

Juanjo Urrutia osasun egoera larrian

Juanjo Urrutia (44 urte) Uru-guain errefuxiatu dagoen soraluzetarra osasun egoera oso larrian dagoela jakinarazi du Etxeratek. Juanjok bi hilabete daramatza eritetxean eta azken bi asteetan bere osasun egoerak okerrera egin du. Hori dela eta, Juanjoren gurasoak Uruguain dira.

Etxeratek salatu duenez "errefuxiatuek euren herrira itzuli ezinaz gainera, paperik gabe, lanik egin ezinda eta baldintza oso kaxkarretan bizi behar izaten dute, euren eta familiaren sufrimendurako".

KZguneko ikastaroak

Herriko Kzgunek martxoko eskeintzen berri eman du: Interne-tean trebatzeko (Flashget) (E), News (E) eta etxetik erosten ikasteko ikastaroa (E). Ordutegia martitzenetan izango da, goizez.

Kzgunea Martxoaren 1, 8 eta 15ean izango da zabalik getatik 13era.

Garabiarendako oinarria plazan

Aste honetan Plaza Zaharrean jarri duten zementuzko blokea, Gabolatzen egingo dituzten etxebizitza berriak egiteko garabiarendako dela jakinarazi digu Udalak.

BAI	EZ	ZURIAK	BALIOGABEAK	PARTEHARTZEA	ABST.
831	592	39	10	1.472	2.004
%54,69	%40,21	%4,4	%0,70	%57,65	%63,35



Baiezkoak nagusi baina ezezko asko Europako Konstituzioari

Joan zen domekan egin zen Europako Konstituzioa bozkatzeko erreferenduma. Soraluzen Konstituzioaren aldekoek irabazi zuten 831 boturekin baina ezezkoak ere asko izan ziren (Gipuzkoako batzbestekotik hurbil (%40,77), 592 hain zuten ere. Hala ere

abstentzioaren aukera egin zuten erreferendumera deituta zeuden 3.476 soraluzetarrak gehienak (%57,65).

Herritar batzuk salatu zuten, mahai batzuetan ez zitzairen herritarrei EHNArekin bozkarik ematen utzi, "ez dela legala" argudiatuta.

Jende ugari Merzedarien agurrean



Joan zen barikuan 150 herritar inguru hurbildu ziren Zaharren Egoitzako Merzedariak omendu eta agurtzeko ekitaldira. Besteak beste; meza, trikitilariak eta luntxa izan zituzten gozagarri, jendearen eskerron eta maitasun adierazpen ugariekin batera.

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34





Mustafa bere bi semeekin (Osama eta Hodayfa) etxeko egongelan tea zerbitzaten.

Hiru etorkinen testigantzak; paperez, lanaz eta bizitzaz

Joan zen otsailaren 7an ireki zen atzerritar etorkinek normalizazio eskaera egiteko epea. Sorraluzeko Udalean 155 etorkin daude erroldaturik: 90 ekuatoriar, 34 marokoar, 3 dominikar, 10 argentinar, 8 brasildar, 3 kolonbiar, txiletar bat eta 6 venezuelar. Zalantza guztiak argitu eta etorkinei laguntza emateko Udalak hitzarmena dauka sinatuta HELDU-rekin,

EAEko atzerritar etorkinei laguntza juridiko soziala emateko zerbitzuarekin.

Guk Sorraluzen bizi diren hiru etorkinen testigantzak jaso ditugu, paperak noiz eta nola lortu zituzten (lortu dituztenek) eta orain zein egoeratan dauden kontatu digute lehenengo pertsonan.

MUSTAFA HINA (Tanger, Marokko)

“Tangerren 4 milioi biztanle bizi dira. Bi denda nituen. Batean jatekoa denetik saltzen genuen eta bestean azeitunak eta holakoak. 1989an Eibarrera etorri nintzen senide bategana, bizimodu hobe baten bila; gero emaztea etorri zen. Orain Sorraluzen bizi gara 3 semeekin, azke-

“Urtebete baino gehiago eman nuen paperik gabe, lan-kontratu bat egiteko aukera eman zidaten arte”

nengo 5 urtetan. Ia ez dut inor ezagutzen goizean lanera irten eta gauean iristen naizelako. Igeltsero-enkofradore egiten dut lan.

Etorri nintzenezan etorkin gutxi bizi

zen hemen inguruetan; orain berriz, mordo. Urtebete baino gehiago eman nuen paperik gabe, lan-kontratu bat egiteko aukera eman zidaten arte. Uste dut orduan errezagoa zela, lana ere gehiago zegoen. Lege berriarekin gauzak ez daude batere errez. Zorte handia behar da kontratu bat lortu ahal izateko. Jende ona eta txarra dago eta enpresariekin gauza bera gertatzen da; batzuk laguntzen dizute eta beste batzuk ez. Auzokoe-kin liskar batzuk gora-behera, gu pozik bizi gara hemen”.

FER. S.A.

Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Sorraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81





Mario eta Henry Marioren etxeko egongelan.



Mario eta Roxana senar emazteak Asier eta Diana seme alabekin.

HENRY CASTRO (Yaguachi, Ekuador)

2003. urtean etorri nintzen Soraluze-
zera. 34 urte ditut eta 6 seme alaben
aita naiz. 3 Bartzelonan bizi dira emaz-
tearekin eta beste 3 Ekuadorren. Lehe-
nengo emaztea etorri zen, Bartzelonara.
Gero ni ere etorri nintzen baina hiru hi-
labetez ez nuen lanik aurkitu. Nere
anaiak Soraluzen bizi ziren eta bertara
etorri nintzen. Datorren apirilaren 13an
erresidentzi txartela jasoko dut. Erregu-
larizazio prozesu guztia Bilboko abokatu
baten bitartez egin nuen. Hemen eskae-
ra onartu zidaten; lan kontratua ba-
nuen, soldatzailearena, pasaportea ere
bai eta bizileku bat ere bai. Gero Ecu-
adorrera itzuli behar izan nuen eta han
ere onartu zidaten eta bisatua eskuratu
nuen. Orain gordekin bat daukat eta
txartelaren zain nago.

Normalizazio prozesu berri honek
gauzak erraztu ditu, emakumeentzat ba-
tez ere. Emakume etorkin askok lan bat

*“Normalizazio prozesu
honek gauzak erreztu ditu,
emakumeentzat batez ere.”*

baino gehiago izaten dute, garbitzaile
dihardutenak batipat. Beraz, enplegu-
emaile bat baino gehiago. Hauek ez dute
gizarte-segurantzarik ordaindu behar
eta nahikoa da euren sinadurekin.

MARIO CANALES (Guayaquil, Ekuador)

Guayaquilgoa naiz, Ekuadorreko
hiririk handienekoa. Han titulorik ezean
bi aukera dituzu: laborantza edo erai-
kuntza. Emaztea eta biok irakasle ginen
hango eskola batean., ni matematika eta
fisika irakasle eta emaztea andereño.
Bizi maila oso bajua genuelako etorri gin-
nen hona. Ekuadorren soldata normal
bat 100 eurotakoa da. 2003. urtean eto-
rri ginen hona anai bategana. Etorri

nintzanean papelik ez neukan eta erai-
kuntzan egin nuen lan. Gero, kontratua
egiteko aukera eman zidan Soraluzeko
enpresa batek eta orain badut erresiden-
tzi txartela.

*“Gobernuak ere ikusten du
enpresari batzuk poltsikoak
betetzen dituztela eta ez
dutela kotizatzen.”*

Normalizazio aukera berriarekin
emaztea ari da. Oraindik legez kanpo
dago, alaba bezala. Uste dut ondo dago-
ela legea. Jentea lasaigo biziko da. Ile-
gala bazara lan egin dezakezu baina aldi
berean explotatu zaitzakete. Gobernuak
ere ikusten du enpresari batzuk poltsi-
koak betetzen dituztela eta ez dutela ko-
tizatzen. Etorrinen sarrera ia zirrikitu-
rik utzi gabe zainduko dute baina en-
presariak ere behartuko dituzte etorki-
nei lan-kontratuak egiteko. Gu oso gus-
tora gaude Soraluzen baina papelak
nahi ditugu lasaigo bizi ahal izateko.



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Limpiezas MEN



Era guztietako garbiketak

**Bulegoak - Komunitateak
Atariak - Garajeak**

M. Carmen Alonso 690792816
Telefonoa 943753079 - 20590 Soraluze

Korrika Kulturala Soraluzen



Korrika Batzordea osatzen duten taldetako ordezkariak Ludotekako bileran.

Hainbat kultur ekitaldi Korrikaren inguruan

Soraluzeko Korrika Batzordeak antolatuta, eta herriko hainbat talderen laguntzarekin, Korrikaren 13. edizioa ospatzeko hainbat kultur ekitaldi antolatu dira martxoko lehen hiru asteetarako.

Martxoaren 1etik 6ra

- Korrikaren logoen erakusketa.
(Kiroldegiko Erakusketa Gelan)

Martxoaren 3an, 19:00etan

- Euskararen Behatokiaren hizualdia. (Abadetxeko Kapilan)

Martxoaren 5ean, 16:00etan

- KORRIKAREN Grafittia edo Murala margotu. (Frontoian)

17:30etan

- KUKUBILTZO ANTZERKI TALDEA (Kiroldegiko frontoian)

Martxoaren 6an, 19:00etan

- Euskarazko 6 Film Labur
(Abadetxeko Kapilan)

Martxoaren 11an, 22:00etan

- Herriko pelotarien arteko partiduak. (Kiroldegiko Frontoian)

Martxoaren 12an, zapatua
KORRIKA EGUNA

- 12:00 etan Etxebarri eta Txakarraren apustua

- 13:00ean poteoa trikitilariekin

- 15:00etan herri bazkaria

- 18:30etan berbena Gaztetxean

(Martxoaren 12tik aurrerako egitaraua hurrengo alean argitaratuko dugu)

Kilometroen salmentari dagokionez, sei kilometro jarri ziren salgai (bakoitza 320 euroko prezioan) eta seirak saldu dira Batzordeko taldeen eskuzabaltasunari esker. Horrez gainera, Korrika Lagun egiteko eskeintza ere egin zaie herriko hainbat denda eta enpresari. Guzti hori, AEK eta helduen alfabetatzeko egitasmoak laguntzeko.

AEK-ko arduradunek adierazi digutenez, "oso gustora gare Soraluzen jaso dogun laguntzarekin. Harrigarria da hain herri txikixa izan dezake egitaraua osatu dan. Asko eskertzen dogu hain laguntza haundixa jaso izana, Soraluzeko euskaltegixa bereziki, laguntza askoren biharrian dago eta".

RK Zuloren 2005eko jaialdia prestatzeko lehen bilera

Bariku gabean egin zen Arrano soziedadean, RK Zuloren 2005eko jaialdia prestatzeko lehen bilera. Joan zen urteetan egin izan duten moduan, taldeak egin dituzte jaialdian parte hartu nahi duten herriko musikazalekin. Orain bi urte Gaztetxean egin zuten jaialdia baina joan zen urtean espazio gehiago behar zutela eta Plaza Zaharrean egin zuten. Jaialdiaz gainera, urtean zehar egiteko beste hainbat ekitaldi kultural ere izan zituzten eztaba-dagai, tartean, Galipot kaleko jaik.

Fernando Oregiren Etiopiako argazkiak ikusgai



Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatuta datorren martitzenetik aurrera, Fernando Oregi soraluzetarraren Abissinia izeneko argazki erakusketa izango da ikusgai Kiroldegiko Erakusketa Gelan. Argazkiak Etiopiarra egin dako bidaia batean ateratakoak dira eta Etiopiako bizimodua eta jendea agertzen dute. Erakusketa martxoaren 19a bitartean izango da zabalik.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENIA (Gipuzkoa)



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Juan Luis Ibarzabal

“Akelarre izan zan lehenengo taldea kontzertuak euskara hutsian emoten”



Juan Luis Ibarzabal Akelarre taldearen “Asfaltuko lorea” lehenengo diskoa eta Los Mansos-en argazki bat erakusten

Joan den urtarrilaren 22an, Akelarre plaza taldeak azken kontzertu batez amaiera eman zion 38 urteko musika ibilbideari. Astigarragako Oailume sagardotegian belaunaldi desberdinetako jarraitzaileak bildu ziren, denak azken Akelarrearen lekuko izateko gogoiz. Musikari ohiak ere han ziren, 30 bat guztira, tartean Juan Luis Ibarzabal Soraluzetarra ere, Akelarre taldeko lehenengo organista eta managerra.

1967: Los Mansos taldearen debuta

Mugimendu guztia lagunartean hasi zela gogoratzen du Ibarzabalek. “Kua-drillan danok ginan musika zaliak. Egun baten, bakoitzak instrumentu bat hartu eta talde bat sortzia erabaki genduan”. Los Mansos taldearen lehenengo formazioa hauek osatzen zuten: Ramon Pia, Jesus Urizar, Jose Martin Rodriguez, Ramon Aranzasti eta Juan Luis Ibarzabal.

Gauzak argi zituztela gogoratzen du Ibarzabalek, “Ensaio asko egitten genduan, zapatu-domeketan bebai, Erregetxian lehenengo eta Oleako eskopeta tallar baten gero. Sesma frontoian be ibili ginan hasieran. 1969xan talde guztia Donostiako musika konserbatorixan egon ginan matrikulauta. Benetan hartu genduan taldea”.

Lehenengo urte haietan, Akelarre izena hartu aurretik, espainolez eta ingelesez kantatzen zuten, sasoiko kantu arrakastatsuen bertsiok eginez.

1975: Los Mansos Akelarre bihurtu zen

Los Mansos-Akelarre taldeak forma-

“1969. urtian taldeko guztiak Donostiako konserbatorixuan egon ginan matrikulauta. Benetan hartu genduan taldea”

zio desberdin ugari izan du 38 urteko historian. Soldaduzka sasoi iritsi zitzaizenean hasi zen dena: “kanbixo asko izan zan. Jentia sartu ta urten ibili zan. Salamankatik Cesar eta Cambronero etorri ziran, Ines Mari be ibili zan sasoi baten. 1972xan Los Mansos eta Iñaki Arriaran (Bergarra) izena jarri genduan.”

Zenbait aldaketaren ondoren, 1975ean Akelarre izena jartzea erabaki zuten. Izen berriak berrikuntza garrantzitsu bat ekarri zuen: euskeraz kantatzen hasi ziren. “Akelarre izan zan lehenengo taldea euskera hutsian kantatzen. Dana egitten genduan euskeraz, aurkezpenak eta dana. Hori nahikua motibo zan inspektoria beti gure atzetik ibiltzeko”.

1975eko Akelarren musikari hauek zeuden: Pia, Aranzasti, Cambronero, Ruiz, Ibarzabal eta Arriaran

1980: “Asfaltuko lorea”, lehen diskoa

1976an Juaristi eta Medina sartu ziren. Formazio berriarekin 3 urte kontzertuak ematen ibili ostean taldea hautsi eta Juaristi, Medina eta Ibarzabal geratu ziren bakarrik. “Orduan taldea profesionalizatzea erabagi genduan” gogoratzen du orduko manager zen Ibarza-

balek. “Orkesta Mondragoneko bateri-xia eta Urkon gitarrista ekarri genduzen. Gauzak ondo zoiazten eta 1980. urtian lehenengo diskoa etara genduan: Asfaltuko lorea. Handik urtebetera Anje Duhalde sartu zan taldean”

1982: Soraluzeko aratusteetan

1982ko otsailaren 23an Ibarzabalen (Akelarreko azken plazentziatarren) despedida kontzertua antolatu zen kontsejupean. Protagonistak ondo gogoratzen du egun zoro hura: “Haura izan zan nere azkenengo kontzertua. Aratustietako martitzena zan, ospatzen zan bigarren urtia eta jentia bero-bero zeguan. Akelarre bazoian plazentziatik eta nostalgia eta alkohola nahastu egin ziran. Halako baten, danak burruketan hasi ziran. Demasa izan zan neretako: Akizu alkatia ordenak emoten, Bonanza lurretik zihar, mundu guztia burruketan, ni negarrez...zoramena izan zan”.

1985-2005: aro berri bat eta krisia

3-4 urtez manager lanetan jarraitu ostean, Ibarzabalek Marcos Juaristi Azkoitiarrari utzi zion taldearen ardura. 20 urte hauetan bera izan da Akelarre taldean manager eta aldatu ez den musikari bakarra. Azken urteetan berbena taldeen krisia etorri da eta Akelarrek ere sufritu du.

Hori dela eta, joan den hilean azken kontzertua eman zuten Akelarrekoek Astigarragako sagardotegi batean. Plazentziatarrek ere irten zuten oholtza gainera: “hunkigarrixa izan zan. Giro oso berezixa zeguan, euskalduna eta Akelarren ibilitako askok jo genduan. Kontzertua grabau zan eta uste dot telebistan ikusteko aukeria eukiko dogula.”



**Oier
Zerrejon**

Soraluzeko musherra

Oier laguntzaile lanetan iaz Baqueiran ospatu zen espainiako mushing txapelketan.

Oier Zerrejonek mushing-a praktikatzen du. Nome (Alaska) hirian du jatorria kirolak. 1925ean epidemia gogor bat izan zen hirian eta kanpotik beharrezko medikamentuak ekarri behar izan zituzten. Gidariak (musherra) eta txakurrrek trineuan ekarri zituzten 658 milia korritu ostean. Alaskatik Soraluzeraino iritsi da mushing-a.

Zela ezagutu zenduan kirol hau?

Bergarako lagun bat ibiltzen da. Ezagutu eta gustau egin jatan. "Ni be hasiko naiz ba!" pentsau neban. Lagun honek txakurtegi bat daka eta erreza-gua izan zan beran bittartez.

Ze arrazatakuak dira txakurrak?

Kirol honetan 2 arrazatakuak erabiltzen dira; Nordikuak (husky arrazak) eta Alaskarrak. Azkenengo honek arraza gurutzatua dira, husky eta kaza txakurren artekoak.

Hemengo klimara ondo moldatzen dira?

Alaskarrak hobeto konpontzen dira beruakin eta azkarraguak dira. Baina danak be gustora ibiltzen dira, arnesa ikusi eta zoratu egitten dira antxixiketant hastiarren. Dana dala, lehiaketak ez

"Oin momentuan, ama eta lau txakurkuma dauzkat neuriak"

dira ospatzen 15 gradu baino gehixago-ko tenperatura badago.

Zela zaintzen ditzuzu txakurrak?

Oin momentuan, ama eta 4 kuma dauzkat. Denbora asko eskeini bihar jakue: egunero jatan, jaten emon (pentsua eta okelia), entrenau, erakutsi...lan haundixa da eta merke-merkia be ez da baina datorren urtian prest egongo dira karreretarako.

Lehiaketak zelakuak izaten dira?

2 lekutan egiten dira: edurretan edo lurretan. Edurretan trineuakin eta lurretan gurpildun karruekin. 3 gurpilekin 4 txakur erabiltzen dira eta 4kin 6. Horren arabera distantziak zehazten dira. IHzko Espainiako Txapelketara 4 txakurrekin jatan nitzan eta 8 km egittia tokau jatan. 39 tik 18. geratu nintzan.

Ze afiziño haundixa dago hemen inguruetan?

Batzuk ezagutzen ditzut Bergan, Ermuan, Azpeitin, Eskoriatzan...Bizkai-xan be bastante. Gehixen Katalunyan.

EMAITZAK

Futbola

- *otsailaren 19an* -
Soraluze **3** - Intxaurren **2**
(Erreg.)
Soraluze **1** - Aretxabaleta **2**
(Juben.)
Zestona **14** - Soraluze **0**
(Kadet.)

Esku pilota

Haritz Laskurain
Eskuko minez dago.

AJENDA

Futbola

- *otsailaren 26an* -
Soraluze-Zarautz
(Erreg.)
Soraluze- Lengokoak
(Juben.)

Mendi taldea

Otsailaren 27an
Laarte mendira (810m) irteera.
(Gaztelu-Tolosa)

Martxoaren 13an
Ibilaldi neurtua Arrasaten

Txuri-urdirak peña

II. Urteurreneko ospakizunak
Martxoaren 12 eta 13an

12an

- gaztetxoendako puzgarriak
- bazkideen arteko bazkaria

13an

- salbamenduko txakurren erakustaldia. Buruhaundiak eta etxaliguak.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarran 22 behea, telf: 943751780

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE

Jose Antonio Saez Abad

“Caceresko Plasenciarekin askotan konfunditzen gaituzte”

Correos-ek Santa Ana kalean duen egoitzan lan egiten du Jose Antonio Abadek, lehiatilaren bestaldean. Zintzo erantzun die gure galderi, gutunak eta inpresoak une batez albo batera utzia. Sekula ez du gutun bat ireki, hori omen da postariaren lehenengo araua. Aurpegi ezagun baten atzean dagoen pertsona hurbilagotik ezagutzeko aukera hamentxe duzu, irakurle

Izen abizenak, jaiolekua?

Jose Antonio Saez Abad, eibartarra.

Zenbat urte daramatzazu Correosen lanean?

Danera 25 urte. Lehenengo Eibarren egin nuen lan, gero Elgoibarren eta azkenengo bost urteetan Soraluzean.

Zenbatek lan egiten duzue hemen?

Zuzendaria, lehiatilatxoan egoten dena (hau da, ni), bi banatzaile eta garbitzaileak.

Asko aldatu al da Correos zu hasi zinanetik?

Asko, teknologia aldetik batez ere. Lehen dena eskuz egin behar izaten genuen. Orain, berriz, dena ordenadorez.

Gutunen kopurua asko jeitsi al da interneten erabilerarekin?


Bai, jeitsi da, baina Correosek ere eskeintzen du sarean hainbat zerbitzu; www.correos.es -en sartzen bazara, adibidez, ordenadore bitartze gutun bat idaz dezakezu. Gainontzeko guztia Correosek egiten dizu: zure testua inprimatu, sobrea sartu eta behar den lekura bidali.

Zenbat gutun bidali eta jasotzen dituzue egunean?

Egun oso desberdinak izaten ditugu; batzutan Caja Laboralekoak, Telefonikakoak, Kutxakoak...danak batera etortzen zaizkigu; beste batzutan oso lasai ibiltzen gara. Adibide bat ematearren atzoko datuak hemen dauzkate: 3000 jaso genituen, 2470 etxeetara bidaltzeko eta 580 postakutxatiletarako. Herritik kanpora 210 bialdu genituen.

Pil-pilean-ek lan asko ematen al dizue?

Hilean 2 aldiz bidaltzen dira aldizkariak kanpora eta ez da lan haundia guretako. Ale bat beti hartzen dugu



Jose Antonio Saez Abad

guretako eta gorde egiten ditugu. Nik ez dut euskera ulertzen baina beti begiratzen dut aldizkaria. Zerbait jakiteko interesa dudanean lankide batek itzul-tzen dit.

Eskuz idatzitako gutunik ikusten al da?

Gutxi. Gehien neska-mutilek, kanpoko laguneri-eta.

Bertso Begiz

*Hogeiabost urtean
gutxi gora behera
gutunen artetikan
gutunen artera.
Internet agertu da
gutunen kaltera
bentaja bat badauka
beraren aldera
gutunak heltzen dira
behar den etxera.*

Neko

(Doinua: Lagundurikan danoi)

Zuk ba al duzu ohiturarik?

Ez, nik ez dut eskutiz idazten; semearen eskola lanak idazten ditut, laguntzeko eskatzen didanean.

Bitxikeriaren bat?

Caceresko Plasenciarekin askotan konfunditzen gaituzte. Sarri iristen da hango korrespondentzia hona eta guk ere bidali behar izaten dugu hara.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



SALAZAR
Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

Argazki zaharra



Los Mansos 1967an

Ez dira Rolling Stonesak, ezta ere Beatlesak; Los Mansos dira, historia egin duen Euskal Herriko berbena talderik ezagunena. Argazkia 1967an Sesma frontoian dago egina, taldea sortu berri-tan.

1975ean Akelarre izena jarri zioten taldeari eta euskera hutsean kantatzen hasi ziren. Partaide aldaketa asko izan du taldeak 38 urtean, baina sortzaileak 5 plazentziatar hauek izan ziren. Ibarzabal izan zen azkena taldea uzten, 1982. urtean. Argazkian ezkerretik esku-mara: Ramon Pía, Juan Luis Ibarzabal, Pepe Rodriguez, Jesus Urizar eta Ramon Aranzasti.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

**Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!**

DEITTU

943 75 13 04 ra

**Aurreko
alean...**



erantzuna...:
lehenengo etxeko leihoak falta dira

...eta irabazlea:
OFELIA LARRAÑAGA

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613




Begoña Urdaitegia

Hestebete bereziak:

Iberikoak •
Pateak •

Hel.: Merkatu Plaza
Telf.: 943 75 3009




Ugaraxo

Edurra mara mara!

**Hau da
gozamena hau!**





Hau da eguraldia!

ENE MARIA ETA JOSE, HAU DA HOTZA EGITEN DUENA! NEGUAK HORRELA JARRAITZEN BADU, IZOZTU EGINGO GARA.

ZUEK ERE HOTZAK AKABATZEN AL ZAUDETE? BAI? EZ? LASAI IBILI, ZE... ESAN DIDATENEZ, INGURU HONETAN BIHURRI SAMAR PORTATZEN DIRENAK MAKILAKADAKA BEROTZEN OMEN DITUZTE. ETA ZUEK BIHURRI SAMARRAK ZARETENEZ... EZ ZARETELA BIHURRIAK? AI, AI, AI,... EZ DAKIT, EZ DAKIT! AURPEGI HORIEKIN!



Koko jantzi eguna



BADIRA URTE ASKO SORALUZEN ERE ARATOSTE JAIA OSPATZEN DELA. EGUNIK GARRANTZITSUENA ASTEARTEA ZEN ETA GAZTEAK KOKO JANTZI (MOZORROTU) EGITEN ZIREN. DUELA 100 URTE INGURU, GABOLATZ KALEKO GAZTE ASKOK, TRENBIDE ZAHARRE-

KO TUNELEAN ERROPAZ ALDATZEN ZIREN INORK EZAGUTU EZ ZITZAN.

GUK ESKOLAN KOKO JANTZI DESBERDINAK ERABILI GENUEN. HAUR HEZKUNTZAKO UMEAK ELUR PANPINEZ MOZORROTUTA JOAN ZIREN. LEHEN ZIKLOKOAK, ALDIZ, MILA KOREZ JOAN ZIREN ETA

GAINONTZEKO GUZTIOK IPUIN KLASIKOKO PERTSONAIETAZ.

DANTZA BUKATUTA, GURASOEK PRESTATURIKO TXOKOLATE EDERRA HARTZEKO ORDUA IRITSI ZEN. HURA BAI ZELA!!!



TXIKI-INKESTA

Gustatzen jatzu edurra? Zelakua da? Zer egiten dozu edurra daganian?

ITSASO RAMIREZ 6 URTE 1.B

Bai, asko gustatzen jata edurra. Aurten behin baino gehixagotan egin dau eta pozik nago. Trineuakin mendira juaten naiz edurra daganian

**MIKEL OREGI 6 URTE 1. A**

Bai, bolak egin eta laguneri botatzen dotset. Lainuekin etortzen da hotz haundixa daganian eta mendixak zurittu egiten dira. Eguzkixakin juaten da.

**JON ORDAX 6 URTE 1. A**

Edurra jausten ikustia gustatzen jata, amamari moduan. Edurra zurixa eta txixixa da eta lur guztia zuri lagatzen dau. Edur bola atakeka jolasten.

**JONE OLAMUSU 6 URTE 1.B**

Edur pelotak egin eta alkarrerri botatzen dotsaguz eta panpinak be egiten dittugu. Edurra hotza da baina guantiekkin berotu egiten naiz

**JULEN GOMEZ 7 URTE 1. A**

Asko gustatzen jata . Edurra zurixa da, biguna eta hotza. Lehenengo teilatuak naranja edo gorri dare eta gero zuri jartzen dira edurragaittik. Orduan umiak jolasten hasten gara

**NEREA REVUELTA 7 URTE 1.B**

Bai, gustatzen jata edurra. Eguzkixa be ondo dago baina nahi-xago dot edurra. Edurretako panpinak egiten doguz eta alkarrri edur pelotak bota

**Neguko kantua**

Edurra teilatuan zakua lepuan,
ibili beharko dogu aurtengo neguan.
Riauuuu!

Riau, riau, riau! rakataplau!
Hau dok umoria,
utzi alde batera euskaldun jentia!

Denborapasak


Gurutzegramak

Ezker-eskuin eta goitik-behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu.

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

- 1.- Ez estu.
- 2.- Auzi.
- 3.- Bakun.
- 4.- XI.hilabetea.
- 5.- Hegazti-mota.

Zer eguraldi da marrazkiko zenbaki bakoitza?



San Blas opilaren errezeta

Sekula ez duzula San Blas opilik egin? Hona hemen erreze-ta. Dagoeneko ez duzu aitxakirik hurrengo batean frogatu egiteko.

Osagaiak:

- > Kilo bat irin
- > Kilo erdi azukre
- > Arrautza dozena erdi
- > Royal sobre bat
- > 125 g. Gantz
- > Anis esentzia tanta batzuk

Ontzi batetan osagai guztiak nahastu, oreak gorputz pixkat hartzen duenean, mahai gainera pasatu eta segi nahasketalazten. Eskuetan pegatzen ez dela ikusten dugunean, masa ongi egin dagoela pentsa dezakegu eta odoren trapu batez estalita ordu bete inguru utziko dugu.

Gero, nahi den forma eman eta ondo berotutako labean sartzen joango gara (180 °C) eta urre kolorea hartu arte bertan eduki (15 bat minutu).

Gaineko zuria egiteko arrautzen zuringoa eta "azukar glas" kolore txuria eta sendo itxura hartu arte ondo irabiatu.

Opilak beroak badaude, hobeto gogortzen da goiko txuria.

Asmakizunak

ZERUTIK NATOR MARA-MARA
ZURIA, HOTZA ETA EDERRA
MENDIAN TXURI GAILURRA
NIRE IZENA DA...

GOITIK BEHERA ZIRT EDO ZART
HEGAN SEGUNDU BAT
HAIZEARI EGITEN DIOT ZIZTA
ETA DEITZEN DIDATE...

14. Korrika **ni ere bai!** aek

Euskal Herria euskalduntzen

ORREAGA-BILBO'05

KORRIKA EGITARAUA SORALUZEN'05

Martxoa

- Korrikaren logoen erakusketa
Martxoaren 1etik martxoaren 6ra.
Non: Kiroldegiko Erakusketa Gelan
- Euskararen Behatokiaren inguruko hitzaldia
Martxoaren 3an, eguna 19:00etan
Non: Kapilan
- KORRIKAREN Grafittia edo Murala margotu
Martxoaren 5ean, zapatua 16:00etan
Non: Frontoian
- Kukubiltxo Antzerki Taldearen ikuskizuna
17:30etan
Non: Kiroldegiko frontoian
- Euskarazko 6 Film Laburren emanaldia
Martxoaren 6an, domeka 19:00etan
Non: Abadetxeko Kapilan
- Herriko pelotarien arteko partiduak
Martxoaren 11an, zapatua 22:00etan
Non: Kiroldegiko Frontoian
- Korrika Eguna Soraluzen
Martxoaren 12an, zapatua
 - 12:00 etan Etxebarri eta Txakarraren apustua
 - 13:00ean poteoa trikitilariekin
 - 15:00etan herri bazkaria Kiroldegian
 - 18:30etan berbena Gaztetxian
(Materiala salgai izan egun guztian zehar)



autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

Deba Barrena
martxoak 10
ELGOIBAR
Máquina Herramienta
BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Zure negozioan, atera probetxua telefonía mugikorrari.

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Telefono mugikorra eguneroko lanean funtsezko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioiko informazioa egunean edukitzeko, gailu eta aukera berrien** bidez eskaintzen dituen erabilera eta aplikazioak erakutsiko dizkizugu. Honela, alferrikako deirik edo bidaiarik egin ez dezazun.

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com
[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Arratzain Sagardotegira Irteera

Martxoak 4 ostirala

Autobusa: 19:30etan Gilan
4:00etan buelta Hernanitik
Prezioa: 30€ -26€(bazkideentzat)

Txartelak: Arrano, Iratxo eta Gila

Antolatzailea:



Laguntzailea:

